Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Izatea Sariak ospatuko ditu

- *Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak deialdia ireki du Euskadiko Gazteriaren lehen sarietarako hautagaiak aurkezteko.*
- *40. urteurrena dela eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazteen ibilbidea, berrikuntza eta erakundeen lana balioan jartzeko sariak sortu ditu.*

Bilbo, 2026ko apirilaren 14a. Bere 40. urteurrena ospatzeko, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) IZATEA SARIAK abiarazten ditu, gazteen arloan egindako ibilbidea, berrikuntza eta erakunde-lana aitortzeko helburuarekin.

Sari honen helburua da Euskadiko gazteria garatzen eta indartzen lagundu duten pertsona, entitate eta proiektuak balioestea, haien lan berritzailea eta konpromiso instituzionala nabarmentzeko.

Ekimen honekin, EGK-k bere konpromisoa berretsi nahi du Euskadiko gazteria sustatzeko eta gizartean duten papera ikusgai egiteko, lau hamarkada hauetan Euskadiko gazteentzako egindako lanari ospakizuna eginez.

Sariaren deialdia eta hautaketa-irizpideak EGK-ko webgunean daude eskuragarri, komunitate guztia parte hartzera eta gazteen arloan bikaintasuna eta konpromisoa islatzen duten hautagaiak proposatzera gonbidatuz.

Informazio gehiago:

komunika@egk.eus

688675932 (Mirene)

El Consejo de la Juventud de Euskadi celebra sus premios Izatea Sariak

- *El Consejo de la Juventud de Euskadi abre la convocatoria para presentar candidaturas a los primeros premios de la juventud de Euskadi.*
- *Con motivo del 40º Aniversario, el Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) lanza una nueva distinción para premiar la trayectoria, la innovación y el trabajo institucional en el ámbito joven.*

Bilbao, 14 de abril de 2026. Con motivo de su 40º Aniversario, el Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) anuncia el lanzamiento de los premios IZATE SARIAK destinados a reconocer la trayectoria, la innovación y el trabajo institucional en el ámbito juvenil.

Este galardón tiene como objetivo poner en valor a aquellas personas, entidades y proyectos que han contribuido de manera significativa al desarrollo y fortalecimiento de la juventud en Euskadi, destacando su labor innovadora y su compromiso institucional.

Con esta iniciativa, EGK reafirma su compromiso con las personas jóvenes de Euskadi y la visibilidad de su papel en la sociedad vasca, celebrando cuatro décadas de trabajo en favor de las personas jóvenes.

La convocatoria y criterios de selección de la distinción están anunciadas en la página web de egk, invitando a toda la comunidad a participar y proponer candidaturas que reflejan la excelencia y el compromiso en el ámbito juvenil.

Más información:

komunika@egk.eus

688675932 (Mirene)